

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Zuzentaraua: 2008/106/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko azaroaren 19koa, itsas lanbideetako gutxieneko prestakuntza-mailari buruzkoa (bertsio bategina)

---

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/106/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 19 de noviembre de 2008, relativa al nivel mínimo de formación en las profesiones marítimas (versión refundida)» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 323/33, 2008/12/03koa*)»

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**2008/106/EE ZUZENTARAUA**

**EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**  
**2008ko azaroaren 19koa**  
**itsas lanbideetako gutxieneko prestakuntza-mailari buruzkoa (bertsio bategina)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 80. artikuluko 2. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Ikusita Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena <sup>(1)</sup>,

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren,

Tratatuaren 251. artikuluan araututako prozeduraren arabera <sup>(2)</sup>,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/25/EE Zuzentaraua, 2001eko apirilaren 4koa, itsas lanbideetako gutxieneko prestakuntza-mailari buruzkoa <sup>(3)</sup>, asko eta askotan aldatu da <sup>(4)</sup>. Zuzentzarau horretan beste aldaketa batzuk egin direnez, komeni da, argitasuna lortze aldera, xedapen horiek bateratzea.

(2) Itsas segurtasunari eta itsas kutsaduraren prebentzioari buruz Erkidegoan ezartzen diren neurriak nazioartean adostutako erregela eta arauetara egokitu behar dira.

(3) Nahitaezkoa da behar bezain beste kontuan hartzea Erkidegoan zer egoeratan dagoen itsas prestakuntza eta itsasgizonen estatutua, Erkidegoaren barruan itsasoko jendeak dituen ezaguerei eta gaitasunei eutsiko bazaie eta horiek garatuko badira.

(4) Behar bezalako prestakuntza bermatu behar da, itsasgizonen lanbide-gaitasuna dutela adierazten duten diplomak, tituluak eta ziurtagiriak emateko, itsas segurtasuna edukitze aldera.

(5) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/36/EE Zuzentaraua, 2005eko irailaren 7koa, lanbide-tituluak onartzeari buruzkoa <sup>(5)</sup>, zuzentzarau honek bere baitan hartzen dituen itsas lanbideei aplikatzekoa da. Zuzentzarau horrek Tratatuaz ezartzen dituen zenbait betebeharrak betetzen laguntzen du; esate baterako, pertsonen zirkulazioa askea izan dadin eta estatu kideen artean zerbitzuak aske eman daitezkeen dauden oztipoak ezabatzeke ezarri diren betebeharrak.

(6) 2005/36/EE Zuzentzarauak ezarritako diplomak eta tituluak denok onartzeak ez du beti bermatzen prestakuntza-maila bateratua izango dutenik estatu kideen banderapean ari diren itsasgizon guztiak. Prestakuntza bateratua izatea, nolana ere, ezinbestekoa da itsas segurtasunaren ikuspuntutik.

(7) Horrenbestez, funtsezkoa da itsasgizonentzat gutxieneko prestakuntza-maila ezartzea Erkidegoan. Prestakuntza-maila horrek nazioartean dagoeneko prestakuntzari buruz adostutako arauak izan behar ditu oinarri; hau da, Nazioarteko Itsas Erakundearen (NIE) Hitzarmena, itsasoko langileentzako prestakuntza, titulazio eta guardiari buruzko arauak, 1978 (STCW Hitzarmena), 1995ean berrikusia. Estatu kide guztiak dira hitzarmen horren alderdi kontratugile.

(8) Estatu kide guztiak ezarri ditzakete STCW Hitzarmenean eta zuzentzarau honetan xedatutako gutxieneko arauak baino arau zorrotzagoak.

(9) STCW Hitzarmenaren arauak zuzentzarau honetan erantsita daude, eta horiek osatu egin behar dira Itsasoko Langileentzako Prestakuntza, Titulazio eta Guardiari buruzko Kodea (STCW Kodea) izenekoaren A zatian adierazten diren betebeharreko xedapenekin. STCW Kodearen B zatia zenbait gomendio jasotzen ditu, STCW Hitzarmenaren alderdi kontratugileei, eta neurri horiek betearazten, aplikatzen edota betetzen direla kontrolatzen parte hartzen dutenei laguntzeko, eta, horrela, modu uniformean bete dadin Hitzarmena.

---

(1) C 151 EO, 2008.6.17koa, 35. or.

(2) Europako Parlamentuaren 2008ko ekainaren 17ko Irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko urriaren 20an hartutako Erabakia.

(3) L 136 EO, 2001.5.18koa, 17. or.

(4) Ikus III. eranskineko A zatia.

(5) L 255 EO, 2005.9.30ekoa, 22. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(10) Itsas segurtasuna hobetze aldera eta itsasoko kutsadura prebenitze aldera, zuzentarau honetan STCW Hitzarmeneko zenbait xedapen erantsiko dira; hain zuzen ere, guardiak egiten dituzten langileei dagozkien gutxieneko atsedenaldeiei buruzkoak. Xedapen horiek aplikatzeaz gain, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 21eko 1999/63/EE Zuzentarauak, itsasoko langileen lanaldia antolatzearen inguruko Akordioari buruzkoak, jasotako xedapenak ere aplikatuko dira; akordio hori Europako Erkidegoko Armadoreen Elkarteak (ECSA) eta Europar Batasuneko Garraioaren Sindikatuen Federazioak (FST) sinatu dute <sup>(1)</sup>.

(11) Estatu kideek neurri espezifikoak ezarri eta betearazi behar dituzte, gaitasun-tituluekin zerikusia duten iruzurrak prebenitzeko eta horiek zigortzeko; horrez gain, NIEren baitan ahaleginak egiten jarraitu behar dute, halako jardueren aurkako mundu-borrokaren inguruko akordio zorrotzak eta betearaztekoak sinatzeko.

(12) Itsasoko nabigazio-segurtasuna handiagoa izateko, itsasoan heriotzak prebenitzeko eta itsasoko kutsadura prebenitzeko, Erkidegoko uretan nabigatzen duten itsasontzietako tripulazioko kideen arteko komunikazioa hobetu egin behar da.

(13) Bidaiari-ontzietan larrialdi-egoeretan bidaiariei laguntzeaz arduratzen diren langileek gai izan behar dute haiekin komunikatzeko.

(14) Zama kaltegarriak edo kutsatzaileak garraiatzen dituzten itsasontzietako tripulazioko kideek gai izan behar dute istripuak prebenitzeko eta larrialdi-egoerei eraginkortasunez aurre egiteko. Horrenbestez, bada, berebiziko garrantzia du kapitainaren, ofizialen eta marinelen artean behar bezalako komunikazio-harremana ezartzea, zuzentarau honetan xedatutako baldintzak beteko dituen.

(15) Funtsezkoa da bermatzea hirugarren herrialdeek emandako tituluak duten eta Erkidegoko itsasontzietan zerbitzuak eskaintzen dituzten itsasgizonek duten gaitasun-maila eta STCW Hitzarmenak eskatutako gaitasun-maila baliokideak izatea. Zuzentarau honek prozedura eta irizpide komunak ezarri behar ditu, hirugarren herrialdeetan ematen dituzten tituluak onar ditzaten estatu kideek. STCW Hitzarmenaren esparruan adostutako prestakuntza- eta titulazio-baldintzak izan behar dituzte oinarri prozedura eta irizpide horiek.

(16) Itsas segurtasunaren onerako, estatu kideek prestakuntza-maila egiaztatzen duten tituluak onartzeko, ezinbestekoa da STCW Hitzarmenaren alderdi kontratugileek ematea, edo haren izenean beste batzuek ematea; azken horien kasuan, ezinbestekoa da NIEren Itsas Segurtasuneko Batzordeak (ISB) egiaztatzea Hitzarmenak ezartzen dituen arauak oso-osorik betetzen dituela tituluak. Estatu kideek titulu horiek soilik onartuko dituzte. NIEren Batzordeak egin beharreko egiaztatze-lanak irauten duen denbora-tarterako, tituluak onartu bitarteko behin-behineko prozedura ezarri behar da.

(17) Beharrezkoa izanez gero, nautika-prestakuntza eskolak ikuskatu behar dira, bai eta bertan irakasten diren programak eta ikastaroak ere. Horrenbestez, ikuskapen horiek egiteko irizpideak ezarri behar dira.

(18) Batzordeak komiteren baten laguntza izan behar du, hirugarren herrialdeetako formazio-zentroek edo administrazioek emandako tituluak edo ziurtagiriak onatzea emateko egin beharreko lanetarako.

(19) Itsas Segurtasuneko Europako Agentziak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1406/2002/EE Erregelamenduaren bidez eratuak <sup>(2)</sup>, Batzordeari lagundu behar dio, zuzentarau honetan ezarritako baldintzak estatu kideek betetzen dituztela zaintzeko lanetan.

(20) Estatu kideek, portuetako agintaritza duten aldetik, Erkidegoko itsasontzien segurtasuna eta uren kutsaduraren prebentzioa hobetu behar dituzte; horretarako, ikuskatu egin behar dituzte, lehenik eta behin, STCW Hitzarmena berretsi ez duten hirugarren herrialdeetako bandera duten itsasontziak. Izan ere, modu horretan bermatuko da hirugarren herrialde baten bandera duten itsasontziek ez dutela gainerakoek baino tratu hobea.

(21) Komeni da zuzentarau honetan kontrolari buruzko xedapenak eranstea portuaren Estatuak, harik eta Kontseiluaren 95/21/EE Zuzentaraua <sup>(1)</sup>, portuaren estatuak ontzia kontrolatzeari buruzkoa, aldatzen den arte; horrela, portuaren Estatuak zuzentarau honetan kontrolari buruz ezarritako xedapenak bere egin ditzan.

(22) Ezinbestekoa da egokitzeko prozedurak ezartzea, zuzentarau hau nazioarteko hitzarmenetan eta kodeetan egindako aldaketetara egokitzeko.

---

(1) L 167 EO, 1999.7.2koa, 33. or.

(2) L 208 EO, 2002.8.5koa, 1. or.

(1) L 157 EO, 1995.7.7koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(23) 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakian ezarritakoaren arabera onartuko dira zuzentarau hau betearazteko behar diren neurriak. Erabaki horretan ezarrita dago zein prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak betearazteko <sup>(2)</sup>.

(24) Komeni da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea zuzentarau honetan aldaketak egin ditzan eta, horrela, nazioarteko kode jakinetan gerora egin daitezkeen aldaketak aplikatzeko, bai eta Erkidegoko legeetan egiten den edozein aldaketa ere aplikatzeko. Neurri horiek orokorrak eta zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzekoak direnez gero, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(25) Zuzentarau honetan erantsitako elementu berriak Komitearen prozedurari buruzkoak dira soilik. Horrenbestez, ez da beharrezkoa estatu kideek beren barne-zuzenbidean eranstea.

(26) Zuzentarau honek ez die eragin behar estatu kideek III. eranskineko B zatiko zuzentaruak barne-zuzenbidean eransteko epeei dagokienez dauzkaten betebeharrak.

### ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

#### *1. artikulua*

#### **Definizioak**

Zuzentarau honetan, hitz hauek definizio hau dute:

- 1) «kapitain»: itsasontzi baten agintea duen pertsona;
- 2) «ofizial»: kapitaina ez den tripulazioko kidea, Estatuko legediak edo arauak hala izendatua edo, izendapenik izan ez bada, kolektiboak edo ohituraz erabakitakoa.
- 3) «zubiko ofizial»: ofizial trebea, II. kapituluko I. eranskinean ezarritakoari jarraiki;
- 4) «lehen mailako pilotu»: kapitainaren ondoren, maila gorena duen ofiziala, eta hark ezintasunez bat izanez gero itsasontziaren agintea hartu behar duena;
- 5) «itsasontziko makinista»: ofizial trebea, III. kapituluko I. eranskinean ezarritakoari jarraiki;
- 6) «makineriako buru»: makineriako ofizial gorena, propulzio mekanikoaren arduraduna, bai eta itsasontziko instalazio mekanikoen eta elektrikoen funtzionamenduaren eta mantentze-lanen arduraduna ere;
- 7) «makineriako lehen mailako ofizial»: makineriako buruaren ondoren, maila gorena duen ofiziala, eta hark ezgaitasunen bat izanez gero propulzio mekanikoaren ardura bere gain hartu behar duena, bai eta itsasontziko instalazio mekanikoen eta elektrikoen funtzionamendua eta mantentze-lanena ere;
- 8) «itsasontziko makinista laguntzaile»: makineriako buru izateko formazio-aldian dagoen pertsona eta Estatuko legediak edo arauak hala izendatua;
- 9) «irradi-komunikazioetako eragile»: irradi-komunikazioei buruzko Erregelamenduan ezarritakoari jarraiki, eskudun agintariak emandako edo onartutako titulu egokia duen pertsona;
- 10) «marinel»: kapitain eta ofizial ez den itsasontziko tripulazioko kidea;
- 11) «itsas nabigazioko itsasontzi»: barruko uretan edo ur babestuetan edo portuko araudia aplikatzen zaien zonaldetan edo ur horietatik oso hurbil soil-soilik nabigatzen ez duen itsasontzia;
- 12) «estatu kide baten bandera duen itsasontzia»: estatu kide batean erregistratuta eta haren legediaren arabera banderapean nabigatzen duen itsasontzia; definizio honetara egokitzen ez diren itsasontziak hirugarren herrialde baten banderapean nabigatzen duen itsasontzizat hartuko dira;
- 13) «kostatik hurbileko bidaiak»: estatu kide baten inguruan egiten diren ibilbideak, estatu kide horrek definitzen duenari jarraiki;

---

(2) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- 14) «propultsio-potentzia»: gehieneko potentzia jarraitua kilowattetan, itsasontziko propultsio-makina nagusi guztiek batera dutena eta itsasontziaren erregistro-ziurtagirian edo bestelako agiri ofizialean jasotzen dena;
- 15) «petrolio-ontzia»: solteko petrolio edo petrolioaren eratorriak garraiatzeko eraikitako eta erabilitako itsasontzia;
- 16) «produktu kimikoentzako tanga-ontzia»: Solteko Produktu Kimikoen Nazioarteko Kodearen 17. kapituluan —indarrean dagoen bertsioa— zerrendatutako edozein produktu likido garraiatzeko eraikitako edo egokitutako itsasontzia;
- 17) «gas likidotuentzako tanga-ontzia»: Gas-ontzien Nazioarteko Kodearen 19. kapituluan —indarrean dagoen bertsioa— zerrendatutako edozein gas likidotu edo bestelako produktuak solte garraiatzeko eraikitako edo egokitutako itsasontzia, eta horretarako erabiltzen dena;
- 18) «Irrati-komunikazioei buruzko Erregelamendua»: irrati-komunikazioei buruzko Erregelamendu berrikusia, munduko irrati-komunikazioen administrazio-konferentziak egokitua zerbitzu mugikorrerako, indarrean dagoen bertsioa;
- 19) «bidaiari-ontzia»: 12 bidaiari baino gehiago garraiatzen dituen itsas nabigazioko itsasontzia;
- 20) «arrantza-ontzia»: arrainak edo itsasoko bestelako baliabide bizidunak arrantzatzeko erabiltzen den itsasontzia;
- 21) «STCW Hitzarmena»: Nazioarteko Itsas Erakundearen (NIE) Nazioarteko Hitzarmena, itsasoko langileentzako prestakuntza, titulazio eta guardiako araei buruzkoa, 1978. urtekoa; Hitzarmenaren VII. artikuluko xedapen iragankorrak eta I/15 araua kontuan hartuta, egokitutako hartutako gaiei aplikatzeko da, eta egoki irizten den guztietan, STCW Kodearen xedapen aplikagarriak barne; horiek guztiak, indarrean dauden bertsioak;
- 22) «zerbitzu erradioelektrikoekin zerikusia duten eginkizunak»: guardiakoak eta mantentze-lan eta konponketa-lan teknikoekin zerikusia dutenak, beharrezko arabera; eginkizun horiek kontuan hartuta beteko dira: irrati-komunikazioei buruzko Erregelamenduaren xedapenak; Itsasoan Giza Bizitzaren Segurtasunerako Nazioarteko Hitzarmena, 1974koa (SOLAS 74) eta, estatu kide bakoitzak erabakitakoaren arabera, NIEk emandako gomendioetatik egokienak irizten dituztenak; horiek guztiak indarrean dauden bertsioak;
- 23) «gurpil bidezko ontzi-aldaketako bidaiari-ontzia»: bidaiari-ontzia, gurpil bidezko zamarako guneak dituen; edo kategoria berezikoak, SOLAS 74 Hitzarmenean, indarrean dagoen bertsioan, jasotakoan definitzen denez;
- 24) «STCW Kodea»: Itsasoko langileentzako Prestakuntza, Titulazio eta Guardiari buruzko Kodea, 1995eko STCW Hitzarmenaren Alderdien Konferentziaren 2. Ebazpenaren bidez onartua; indarrean dagoen bertsioari jarraiki;
- 25) «funtzio»: STCW Kodean zehazten diren eginkizunen, betebeharren eta arduren multzoa; horiek guztiak ezinbestekoak dira itsasontziaren funtzionamendua egokia izateko, itsasoan gizakiaren bizitzaren segurtasuna ziurtatzeko eta itsas ingurumena babesteko.
- 26) «konpainia»: ontziaren jabea edo beste edozein erakunde edo pertsona; esaterako, itsas kudeatzailea edo tripulaziorik gabeko fletatzailea, betiere jabeak ontzia ustiatzeko ardura eman eta, dagokion eginkizun horretarako, zuzentarau honetan ezarritako betebeharrak eta ardura guztiak onartu baditu;
- 27) «titulu egoki»: zuzentarau honetako xedapenei jarraiki emandako eta berretsitako titulua, eta titular legitimoari ahalmena ematen diona zerbitzu jakin bat emateko, betiere zehaztutako erantzukizun-mailari xedatutako funtzioak betetzeko eta adostutako mailan aritzeko; zerbitzu horiek betetzeko, halaber, egin beharreko itsasaldiak iraun bitartean, tituluari dagokion itsasontzi-mota, itsasontziaren tonajea, potentzia eta itsasontziak duen propultsio-indarra kontuan hartu behar dira;
- 28) «ontziratze-aldia»: itsasontzi batean emandako zerbitzua, eta tituluren bat edo bestelako kualifikazioaren bat lortzeko kontuan hartzen dena;
- 29) «homologatua»: Estatu kideek onartua, zuzentarau honetako xedapenei jarraiki;
- 30) «hirugarren herrialde»: estatu kide ez den beste estatu oro;
- 31) «hil»: egutegiko hil bat edo hogeita hamar egun, hilabete baino gutxiagoko epeez osatua.

### 2. artikulua

#### **Aplikazio-eremua**

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Zuzentarau hau aplikatuko zaie bere baitan hartzen diren itsasgizon izan eta estatu kideren bateko banderapean itsas nabigazioak egiten dituzten itsasontzietan aritzen diren guztiei; honako ontzi-mota hauetan aritzen direnei izan ezik:

- a) gerra-ontziak, itsasontzi osagarriak eta bestelako ontziak, betiere estatu kideren batenak badira edo hark ustiatzen baditu eta merkataritza-arlokoak ez diren gobernuzko zerbitzuetan soilik erabiltzen badira;
- b) arrantza-ontziak;
- c) laketontziak, merkataritzarako erabiltzen ez direnak;
- d) aspaldi eraikitako egurrezko itsasontziak.

### *3. artikulua*

#### **Prestakuntza eta titulazioa**

1. Estatu kideek behar adina neurri ezarriko dituzte bermatzeko 2. artikuluan adierazitako itsasontzietan aritzen diren itsasoko langileek, gutxienez, STCW Hitzarmenaren baldintzak betetzen dituen prestakuntza izango dutela —zuzentarau honen I. eranskinean ezarritakoari jarraiki— eta 4. artikuluan definitutako titulua dutela bermatzeko, edo 1. artikuluan, 27. puntuan definitutako titulu egokia dutela bermatzeko.

2. Estatu kideek behar adina neurri ezarriko dituzte bermatzeko SOLAS 74 Hitzarmenaren III/10.4 arauan ezarritakoaren arabeko titulazioa behar duten tripulazioko kideek dagokien prestakuntza eta dagokien titulazioa izango dituztela, zuzentarau honen xedapenetan ezarritakoaren arabekoak.

### *4. artikulua*

#### **Titulua**

Titulua baliozko dokumentu oro da —edozein dela haren izena—, estatu kideren bateko agintari eskudunak emana, edo horretarako ahalmena eman dion agintariak emana, 5. artikuluan ezarritakoari eta I. eranskinean ezarritako baldintzei jarraiki.

### *5. artikulua*

#### **Tituluak eta berrespenak**

1. Tituluak 11. artikuluan xedatutakoari jarraiki eman behar dira.
2. Estatu kideek kapitainen, ofizialen eta irrati-komunikazioetako eragileen tituluak berretsi behar dituzte, artikuluan honetan adierazitako moduan.
3. Tituluak STCW Hitzarmenaren I/2 arauaren 1. paragrafoan ezarritakoari jarraiki eman behar dira.
4. Irrati-komunikazioetako eragileei dagokienez, estatu kideek ahalmena izango dute:
  - a) irrati-komunikazioei buruzko Erregelamenduaren arabeko titulua eskuratzeko aurretik egin beharreko azterketan, ikasi beharreko arauetako ezaguera osagarriak ere erants ditzaten eskatzeko, edo
  - b) aparteko ziurtagiri bat emateko, ikasi beharreko arauetako ezaguera osagarriak badituela adierazten duena.
5. Estatu kideari egokia irudituz gero, STCW Kodearen A-I/2 atalean xedatu bezala berretsiko ditu eman beharreko tituluak. Eginbide hori titulu bertan adierazten bada, A-I/2 atalaren 1. paragrafoan adierazten den eredia erabili beharko da. Gainerako kasuetan, atal bereko 2. paragrafoan adierazitako eredia erabili beharko da. Berrespenak STCW Hitzarmenaren VI. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoari jarraiki eman behar dira.
6. Estatu kideren batek 19. artikuluan 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki onartzen badu titulua, berretsi egingo du titulua, hala onartu zela egiaztatzeko. Berresteko eredia STCW Kodearen A-I/2 atalaren 3. paragrafoan xedatutakoa izango da.
7. 5. eta 6. paragrafoetan adierazitako berrespenei dagokienez:
  - a) aparteko dokumentu gisa eman ahal izango dira;

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

b) zenbaki bera izango dute, titulua eman dela egiaztatzen duten berrespenek izan ezik; horiek tituluaren zenbaki berbera izan dezakete, baldin eta zenbaki bera bada; eta

c) baliorik gabe geratuko dira, berretsitako titulua iraungitzen denean edo eman zuen estatu kideak edo hirugarren herrialdeak kentzen duenean, indargabetzen duenean edo ezereztzen duenean, eta, betiere, emandako egunetik kontatzen hasi eta bost urteren buruan.

8. Berrespen-ereduak adierazi egin behar du titularrak zer funtzio-mota betetzeko baimena duen, segurtasunari buruz estatu kideak aplikagarritzat hartu dituen aginduetan erabiltzen diren termino berberetan.

9. Estatu kideek STCW Kodearen A-I/2 atalean adierazten ez den bestelako eredia erabili ahal izango dute, betiere beharrezko informazioa, gutxienez, karaktere erromatarretan eta zifra arabiarretan ematen bada, eta A-I/2 atal horretan baimentzen diren aldaketak kontuan hartzen badira.

10. 19. artikulua 7. paragrafoan ezarritakoa gorabehera, zuzentarau honen bidez xedatutako titulu oro eskuragarri egongo da, jatorrizko formatuan, titularra zerbitzuak ematen ari den itsasontzian bertan.

### *6. artikulua*

#### **Prestakuntzari buruzko baldintzak**

3. artikuluan eskatzen den prestakuntza I. eranskinean xedatutako ezaguera teorikoetara eta trebetasun praktikoetara egokituta emango da; batik bat, salbamendu-ekipoaren erabilerari eta suteak itzaltzeari dagokiona. Horrezaz gain, agintari eskudunak edo estatu kide bakoitzak horretarako izendatzen duen organismoak onartu behar du.

### *7. artikulua*

#### **Kosta inguruko bidaietan aplikatu behar diren printzipioak**

1. Kosta inguruko bidaiak dagokienez, estatu kideek ezin izango dituzte behartu beste estatu kide bateko edo STCW Hitzarmenaren Alderdikoa ez den beste estatu bateko bandera edukitzeko baimena duten itsasontzietan ari diren itsasoko langileak baldintza hauek betetzera: estatu bereko bandera edukitzeko eskubidea duten itsasontzietan zerbitzuak ematen dituzten itsasoko langileentzako baino zorrotzagoak diren prestakuntzari, esperientziari eta titulazioari buruzko baldintzak. Estatu kideek ezin izango dituzte behartu, inoiz, beste estatu kide bateko edo STCW Hitzarmenaren Alderdikoa ez den beste estatu bateko banderapeko itsasontzietan zerbitzuak ematen dituzten itsasoko langileak, kosta inguruan bidaiak egiten ez dituzten itsasontzientzat zuzentarau honetan xedatutako baldintzak baino zorrotzagoak betetzera.

2. Estatu kide bateko bandera edukitzeko eskubidea duten eta normalean beste estatu kide bateko edo STCW Hitzarmena sinatu zuen estatu bateko kostatik hurbil egiten baditu bidaiak, itsasontziari bandera eramateko baimena eman dion estatu kideak ezarriko ditu itsasontzi horietan zerbitzua ematen ari diren itsasoko langileentzako prestakuntza, esperientzia eta titulazioari buruzko baldintzak; horiek, gutxienez, itsasontzia nabigatzen ari den kosta pareko estatu kidearenak edo STCW Hitzarmena sinatu zuen estatuarenak bezalakoak izango dira, baldin eta kosta inguruan bidaiak egiten ez dituzten itsasontzientzako zuzentarau honek ezarritako baldintzak baino zorrotzagoak ez badira. Estatu kideak kosta inguruko bidaiatzat definitutakoak haratago eta definizio horretatik kanpoko uretara iristen diren bidaiak egiten dituzten itsasontzietan zerbitzuak ematen dituzten itsasoko langileei dagokienez, zuzentarau honetan halako kasuetarako ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

3. Estatu kide bateko bandera erabiltzeko baimena eman dion itsasontziari, estatu kide horrek zuzentarau honetan kosta inguruko bidaiak buruz ezarritakoek eragindako onurak eman ahal izango dizkio, baldin eta itsasontziak estatu kideak definitutakoaren arabera kosta inguruko bidaiak erregularitasunez egiten baditu, STCW Hitzarmena sinatu ez zuen estatu horren kosta parean.

4. Estatu kideek, kosta inguruko bidaiak zer den definitu aurretik eta 1., 2. eta 3. paragrafoetako xedapenen bidez bidaiak horietarako eskatuko diren hezkuntza- eta prestakuntza-baldintzak erabaki aurretik, ezarritako xedapenen inguruko xehetasunak jakinaraziko dizkiote Batzordeari.

### *8. artikulua*

#### **Iruzurraren eta legearen aurkako bestelako jardunbideen prebentzioa**

1. Estatu kideek behar adina neurri ezarriko dituzte eta horiek betearaziko dituzte, titulazio-prozesuarekin eta estatu etako agintari eskudunek emandako eta berretsitako tituluekin zerikusia duten iruzurrak eta legearen aurkako bestelako jardunbideak prebenitzeko; horrezaz gain, zigorrak ezarriko dituzte, eraginkorrak, proportzionalak eta disuasiozkoak.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. Estatu kideek eskudun agintariak izendatuko dituzte, norbere estatukoak, iruzurra eta legearen aurkako bestelako jardunbideak hautemateko eta horiei aurre egiteko, eta beste estatu kideetako eta hirugarren herrialdeetako eskudun agintarien artean informazioa trukatzeko; hau da, itsasoko langileen titulazioari buruzko informazioa elkarren artean trukatzeko.

Estatu kideek ahalik eta lasterren jakinaraziko dizkiete gainerako estatu kideei eta Batzordeari estatuetako agintari horiek bildutako datuak.

Estatu kideek estatuetako agintari horiek bildutako datuak ahalik eta lasterren jakinaraziko dizkiete, halaber, STCW Hitzarmenaren I/10 arauaren 1.2. paragrafoari jarraiki, haiekin batera akordioaren bat sinatu duten hirugarren herrialdeei.

3. Harrera egingo duen estatu kideak hala eskatzen badu, beste estatu kideetako agintari eskudunek itsasoko langileen tituluak benetakoak diren idatziz baieztatu edo ezeztatu beharko dute, bai eta horiei dagozkien berrespenak eta azken estatu kide horrek eman duen eta prestakuntzarekin zerikusia duen dokumentu-egiaztagiri oro ere.

### *9. artikulua*

#### **Zehapenak eta diziiplina-neurriak**

1. Eskumenik ezaren, ez-egiteen edota itsasoko ingurumena, ondasunak eta itsasoan gizakiaren bizitza zuzenean arriskuan jar dezaketen bestelako egintzen inguruko jakinarazpenak inpartzialtasunez ikertzeko mekanismoak eta prozedurak ezarriko dituzte estatu kide guztiak; jakinarazpen horiek estatu kideak emandako titulua edo berrespena duten langileek egindakoak dira, titulu horiei dagozkien funtzioak betetzeari buruzkoak, eta titulu horiek kentzea, baliogabetzea edota ezeztatzea dute helburu, bai eta iruzur egin dezaten eragozte ere.

2. Estatu kide guztiak zehapenak edo diziiplina-neurriak ezarriko dituzte estatuko legediaren bidez ezarritako xedapenen inguruko arau-hauste kasuetarako; horrela, estatu kideko bandera erabiltzeko eskubidea duten itsasontzietan buruz eta estatu kide horrek titulazioa emango liekeen itsasoko langileei buruz zuzentarau honetan ezarritakoa eraginkorra izan dadin.

3. Zehapen edo diziiplina-neurri horiek, batik bat, honako hauen inguruan ezarriko eta aplikatuko dira:

a) Zuzentarau honek xedatutako titulua ez duen pertsona bat kontratatzen duen konpainia edota kapitaina;

b) funtzio edo zerbitzu jakin bat, horretarako beharrezkoa den titulua, baliozko salbuespen, edota 19. artikuluko 7. paragrafoan agindutako dokumentu-egiaztagiria ez duen pertsona batek —zuzentarau honetan ezarritakoaren araberrako titulua— egitea baimendu duen kapitaina; edo

c) iruzur eginda edo dokumentu faltsuen bidez, kontratua eskuratu duen pertsona; baldin eta funtzio edo eginkizun jakin horiek betetzeko ezinbestekoa bada zuzentarau honek xedatutako titulazioa edo salbuespena edukitzea.

4. Estatu kide baten jurisdikzioaren barruan zuzentarau honetan ezarritakoa ustez betetzen ez duen edo ez betetze horren ardura duen konpainia edo pertsonaren bat delako susmoa badago, behar bezala oinarritua —3. paragrafoan zehaztutakoak, esate baterako—, haren jurisdikzioan prozedurak abian jartzeko asmoa duela jakinarazten dion estatu kidearekin edo STCW Hitzarmenaren beste alderdiren batekin arituko da lankidetzan.

### *10. artikulua*

#### **Kalitate-arauak**

1. Estatu kideek honako hauek bermatuko dituzte:

a) haien agintaritzapean, gobernuz kanpoko erakunde edo elkarteek egindako prestakuntza-jarduera, gaitasun-ebaluazio, titulazio, berrespen eta baliozkotze guztiak ikuskatu eta egiaztatu egingo direla beti; horretarako, kalitatearen inguruko arau-sistema bat erabiliko dute, erabakitako helburuak lortzen direla egiaztatzeko, irakasleen eta ebaluazioak egiten dituztenen kualifikazio eta esperientziaren ingurukoak barne.

b) jarduera horiek gobernuaren erakundeek edo elkarteek antolatuz gero, kalitatearen inguruko arau-sistema bat ezarri dela;

c) lortu beharreko eskola- eta prestakuntza-helburuak, bai eta lortu beharreko gaitasunaren inguruko arauak ere, argi eta garbi zehaztuta daudela; halaber, gaitasunaren inguruko arau horietan, ezaguera-, ulermen- eta gaitasun-mailak identifikatzen direla, STCW Hitzarmenak xedatutako azterketak eta ebaluazioak egiteko.



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

d) kalitate-arauen aplikazio-eremuak alderdi hauek guztiak hartzen dituela bere baitan: estatu kideek edo haien agintaritzapean abian jarritako titulazio-sistemaren administrazio-alderdi, prestakuntza-ikastaro eta -programa, azterketa eta ebaluazio guztiak, bai eta irakasleei eta ebaluazioak egiten dituztenei eskatzen zaizkien kalifikazioak eta esperientzia ere; erabakitako helburuak lortze aldera, kontuan hartuko dira kalitate-bermea zehazteko ezarritako barneko araudia, sistemak, ikuskapenak eta azterketak.

Lehen paragrafoaren c) idatz-zatian ezarritakoarekin lotura duten kalitate-helburuak eta -arauak kasuan kasu zehaztu ahal izango direla, prestakuntza-ikastaroak eta -programak bereizten direla eta, halaber, titulazio-sistemaren administrazio-alderdiak erantsiko direla.

2. Estatu kideek bermatu egingo dute, halaber, bost urtean behin, gutxienez, auditoria independenteak egingo direla ezaguerak, ulermena, trebetasunak eta gaitasunak eskuratzearekin zerikusia duten ebaluazio-jardueren inguruan, eta titulazio-sistemaren administrazio-alderdien inguruan; ebaluazio horiek pertsona kualifikatuek eta jarduera horiekin zerikusirik ez dutenek egingo dituzte, honako hauek egiaztatu ahal izateko:

a) kudeaketa kontrolatzeko eta zaintzeko, eta kudeaketaren jarraipena egiteko barneko neurri guztiak egokitu egiten direla alde zuzenetik erabakitako planetara eta prozedura dokumentatuetara; eta, halaber, eraginkorrak izango direla ezarritako helburuak lortze aldera;

b) egiten diren ebaluazio independente guztien emaitzak dokumentatu egiten direla, eta ebaluatu den alorreko arduradunei horien berri ematen zaiela, eta

c) behar adina neurri ezartzen direla akatsei aurre egiteko.

3. Estatu kideek Batzordeari bidaliko diote 2. paragrafoan xedatutako ebaluazioari buruzko txostena, ebaluazio hori egin eta sei hileko epea igaro baino lehen.

### *11. artikulua*

#### **Gorputz-gaitasunari buruzko arauak: tituluak ematea eta erregistratzea**

1. Estatu kideek arauak ezarriko dituzte itsasoko langileen gorputz-gaitasunen inguruan, bereziki ikusmenarekin eta entzumenarekin zerikusia dutenen ingurukoak.

2. Estatu kideek bermatu egingo dute tituluak soilik artikulua honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenei ematen zaizkiela.

3. Titulua eskuratu nahi duten guztiek honako hauen inguruko proba fede-emailea aurkeztu behar dute:

a) nortasuna;

b) ez dela eskatutako tituluari dagokion arauan —I. eranskinean adierazten da— zehaztutakoa baino gazteagoa;

c) estatu kideak gorputz-gaitasunari buruz onartutako arauak betetzen dituela, batik bat ikusmenarekin eta entzumenarekin zerikusia dutenak, eta baliozko mediku-ziurtagiria duela, behar bezala kualifikatutako eta estatu kideko agintari eskudunak onartutako mediku batek emana;

d) agindutako ontziratze-aldia bete duela eta nahitaezko prestakuntza jaso duela, eskatutako titulua eskuratzeko I. eranskinean ezarritako arauak jarraiki; eta

e) gaitasunei, funtzioei eta mailei buruzko arauetan xedatutako gaitasun-arauak betetzen dituela, I. eranskinean adierazitakoak; horiek guztiak tituluaren berrespenean adieraziko dira.

4. Estatu kideek konpromiso hauek hartuko dituzte beren gain:

a) kapitainei eta ofizialei, bai eta marineiei ere emandako titulu eta berrespen guztien erregistroa edo erregistroak egiteko, egokiena irizitakoa; erregistro horietan, halaber, iraungi, galdu edo hondatutako tituluen eta berrespenen berri ere jasoko da, bai eta emandako salbuespenen inguruko informazioa ere; eta

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

b) titulu, berrespen eta salbuespen horiei buruzko informazioa emateko beste estatu kideei edo STCW Hitzarmenaren beste estatuei eta konpainiei, eskatutako itsasoko langileek aurkeztutako tituluen egiazkotasuna eta baliozkotasuna egiaztatze eskatzen dutenean, izan titulu horiek onartzeko zein itsasontzian haien zerbitzuak kontratatze.

### *12. artikulua*

#### **Tituluak berrestea**

1. I. eranskineko kapitulu guztietan —VI. kapituluan izan ezik— ezarritakoari jarraiki emandako edo onartutako tituluren bat duten kapitain, ofizial eta irrati-komunikazioetako eragile guztiek, eta itsasontziren batean zerbitzuak ematen ari direnek edo lehorrean denboraldi bat egon ostean itsasontziren batean zerbitzuak eman nahi dituztenek, egiaztatu egin behar dute, bost urtean behin gutxienez, itsasontzian zerbitzua emateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituztela; hain zuzen ere, baldintza hauek:

a) gorputz-gaitasuna, 11. artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta

b) dagokion lanbide-gaitasuna, STCW Kodearen A-I/11 atalean xedatutakoaren arabera.

2. Nazioarte-mailako prestakuntzako baldintza bereziak beharrezkoak diren itsasontzietan zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko, kapitainek, ofizialek eta irrati-komunikazioetako eragileek gainditutako motara egokitutako prestakuntza jaso behar dute eta hura gainditu.

3. Estatu kideek 2002ko otsailaren 2a baino lehen emandako tituluak eskuratu zituztenen gaitasun-maila egiaztatu behar dute, eta STCW Kodearen A zatian adierazitako tituluarentzat ezarritako mailarekin alderatu; horren arabera, estatu kideek erabaki egin behar dute beharrezkoa den titulu horiek dituztenei prestakuntza egokia eskatzea, ezaguerak birpasatzeko eta eguneratzeko edota horiei buruzko ebaluazioa egiteko.

Birpasatzeko eta eguneratzeko ikastaroak homologatuta egongo dira, eta itsasoan gizakiaren bizitzaren segurtasunerako eta itsas ingurumena babesteko estatueta eta nazioartean dagoen araudian egindako aldaketak erantsiko dituzte, eta aintzat hartuko dituzte gaitasun-mailei buruz egindako eguneratzeak.

4. Estatu kideek, interesa dutenekin kontsulta egin ondoren, birpasatzeko eta eguneratzeko ikastaroen plana egingo dute edo egitea bultzatuko dute, STCW kodearen A/I/11 atalean xedatutakoaren arabera.

5. Kapitainek, ofizialek eta irrati-komunikazioetako eragileek dituzten ezaguerak eguneratze aldera, estatu kideek modua egingo dute, beren estatuko bandera erabiltzeko eskubidea duten itsasontzietan, eskuragarri egon daitezen itsasoan gizakiaren bizitzaren segurtasunerako eta itsas ingurumena babesteko estatueta eta nazioarteko araudietan egindako aldaketei buruzko informazioa biltzen dituzten testuak.

### *13. artikulua*

#### **Simulagailuen erabilera**

1. Bete egin behar dira, titulu bakoitzari dagokionaren arabera, errendimendu-arauak eta STCW Kodearen A-I/12 atalean adierazitako beste xedapen batzuk, bai eta Kode horren beraren A zatian zehaztutako baldintzak ere; hain zuzen ere hauek:

a) simulagailuekin nahitaez egin beharreko prestakuntza;

b) gaitasunari buruzko ebaluazio guztiak, hain zuzen STCW Kodearen A zatian eskatzen direnak eta simulagailuarekin egitekoak direnak, eta

c) nahikotasunari buruzko proba guztiak, etengabeko izaera izan, simulagailuan egin beharrekoak izan eta STCW Kodearen A zatian ezarrita daudenak.

2. 2002ko otsailaren 1a baino lehen instalatutako edo zerbitzuan jarritako simulagailuak 1. paragrafoan adierazitako errendimendu-arau guztiak betetzetik salbuetsi ahal izango dira, estatu kideek hala eskatuz gero.

### *14. artikulua*

#### **Konpainien erantzukizuna**

1. Estatu kideek, ziurtatu egingo dute, 2. eta 3. paragrafoetan ezarritakoaren arabera, konpainiek erantzukizuna beren gain hartzen dutela, itsasoko langileek itsasontzian zerbitzuak eman ditzaten izendatzeko, zuzentarau honetako xedapenei jarraiki; horrez gain, konpainia guztiei eskatuko diete hauek bermatzeko:

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- a) beren itsasontzietan aritzeko izendatutako itsasoko langile guztiek dutela dagokien titulazioa, zuzentarau honetako xedapenei jarraiki, eta norbere estatuan erabakitakoaren arabera;
- b) gutxieneko segurtasun-hornidurari buruz estatu kideek ezarritako aginduei jarraiki tripulatuta daudela beren itsasontziak,
- c) beren itsasontzietan lanean ari diren itsasoko langile guztien dokumentazioa eta datuak badituztela eta erraz eskuratzeko moduan daudela, eta betebeharreko funtzioetarako haiek duten esperientzia, formulazio, gorputz-gaitasun eta eskumenari buruzko informazioa adierazten dela horietan;
- d) beren itsasontzietan aritzeko izendatutako itsasoko langileak ohituta daudela betebeharreko berariatzko funtzioetara eta trebatuta daudela itsasontziko gailu, instalazio, ekipo, eta haren prozedura eta ezaugarrien inguruan, ohiko edota larrialdiko egoeretan funtzioak bete ahal izateko, eta
- e) itsasontziaren hornidurari dagokionez, larrialdiko egoera batean jarduerak eraginkortasunez koordina ditzakeela eta segurtasunerako eta itsas kutsadura prebenitzeko edo murrizteko ezinbestekoak diren funtzioak bete ditzakeela.

2. Konpainien zein kapitainen eta tripulazioko kideen ardura izango da artikulua honetan zehaztutako betebeharrak erabat eta zentzuz betearaztea, eta behar adina neurri hartzea ere bai, itsasontziak behar bezala funtziona dezan tripulazioko kide guztiek adimenez eta informatuta lagun dezaten lortzeko.

3. Konpainiak instrukzioak idatziz emango dizkie zuzentarau hau aplikatuko zaien itsasontzietako kapitainei; bertan, jarraibideak eta jarraitu beharreko prozedurak adieraziko dira, bermatu ahal izateko itsasontzian sartuko diren itsasoko langile guztiek aukera izango dutela ekipoarekin, jarduteko moduekin eta itsasontzian ezarritako gainerakoekin ohitzeko eta, modu horretan, funtzioak behar bezala betetzeko, horiek egin ditzala agindu baino lehen. Hona hemen jarraibide eta prozedura horiek beren baitan hartu beharrekoak:

a) zentzuzko epea, itsasontzian sartuko diren itsasoko langile guztiak honako hauekin ohitu ahal izateko:

i) erabiliko duen edo funtzionaraziko duen ekipo zehatzarekin, eta

ii) guardiei, segurtasunari, ingurumen-babesari eta larrialdiei buruzko prozedura eta bitarteko zehatzekin, agintzen zaizkion eginkizunak behar bezala betetzeko jakin beharrekoak;

b) ondo informatutako tripulazioko kide baten izendapena, hark ziurtatu dezan itsasontzian sartzen diren itsasoko langile guztiei ulertzen duten hizkuntzan ematen zaiela beharrezko informazioa.

### *15. artikulua*

#### **Zerbitzua betetzeko gaitasuna**

1. Nekea prebenitze aldera, estatu kideek atsedenaldiak ezarriko dituzte guardiaren ardura duten langileentzat eta horiek betearaziko dituzte; eskatuko dute guardiak egiteko sistemak behar bezala antolatzeke, nekeak eragin ez diezaion guardiaz arduratzen diren langileen eraginkortasunari; horrezaz gain, eskatuko dute eginkizunak ere behar bezala antolatzeke, bidaiari ekiterakoan lehendabiziko guardia egiteaz arduratzen diren langileek eta haren segidakoak egingo dituztenek nahikoa atsedena har dezaten, eta zerbitzua betetzeko erabat gai izan daitezen.

2. Guardia batean ofizial eginkizunak edo guardia egiten parte hartzeko marinel eginkizunak beteko dituzten pertsona guztiek, gutxienez, hamar orduko atsedenaldia izango dute 24 orduko epe bakoitzeko.

3. Atsedenaldirako orduak, gehienez, bi epealditan banatu ahal izango dira, eta horietako bat sei ordukoa izango da, gutxienez.

4. 1. eta 2. paragrafoetan atsedenaldiei buruz adierazitakoak ez dira betebeharrekoak izango larrialdi-egoeraren batek, funtzionamenduzko aparteko jarduera batek edo bestelako gertaeraren batek irauten duen bitartean.

5. 2. eta 3. paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, gutxieneko hamar orduko epealdia murriztu daiteke eta etenik gabeko sei ordu ezarri, baldin eta murrizketa hori bi egunetan segidan aplikatzen ez bada eta zazpi eguneko epealdi bakoitzeko, gutxienez, hirurogeita hamar orduko atsedenaldia ematen bada.

6. Estatu kideek aginduko dute guardia-epealdiei buruzko planak erraz eskuratzeko moduan edukitzeke.

### *16. artikulua*

### **Salbuespena**

1. Oso aparteko egoeraren bat gertatuz gero, agintari eskudunek, pertsonak edota ingurumen-ondasunak eta -baliabideak ez direla arriskuan jartzen irizten badiote, albuespenak eman ahal izango dituzte; albuespen hori dela-eta, itsasontzi jakin batean eta epealdi jakin baterako zerbitzuak ematen ari den marinel jakin bat sei hilabeteko baino gutxiagoko epealdian irati-komunikazioetako eragile ez den beste lanen batean aritu ahal izango da, nahiz eta albuespena baliatu duen onuradunak titulu egokia ez izan horretarako; dena dela, hutsik dagoen postua arriskurik gabe betetzeko adina gaitasun baduela eta gaitasun-maila nahikoa baduela adierazi behar dute agintari eskudunek. Horrez gain, irati-komunikazioei buruzko Erregelamenduaren arauetan xedatutako egoerarik ez gertatzea ezinbestekoa da. Nolanahi ere, ez dira albuespenak emango kapitainentzat ez eta itsasontziko makinistaburuentzat ere, ezinbesteko kasuetan izan ezik; halako egoerarik gertatuz gero, ahalik eta epealdi laburrenerako emango dira albuespenak.

2. Zenbait postutarako albuespenak, bakar-bakarrik, behar besteko titulua duten pertsonen emango zaizkie, hierarkian maila bat beheragoko postua betetzeko. Beheragoko maila horretarako titulaziorik behar ez bada, beste pertsona bati eman ahalik zaio albuespena, baldin eta agintari eskudunak irizten badu albuespena eman zaion pertsona horrek bete beharreko postu horretarako eskatzen diren gaitasun eta esperientzia baliokideak badituela; dena dela, behar adinako titulua ez duen pertsona horrek nahitaez gaudituz behar du agintari eskudunek ontzat emandako proba, egiaztatu ahal izateko ez duela arriskurik eragingo emandako albuespen horrek. Horrez gain, agintari eskudunek bermatu egingo dute ahalik eta lasterren beteko duela postu hori behar adinako titulua duen pertsona batek.

### *17. artikulua*

#### **Estatu kideen ardurak prestakuntzaren eta ebaluazioaren alorrean**

1. Estatu kideek agintariak edo erakundeak izendatuko dituzte, honako hauetarako:

- a) 3. artikuluan xedatutako prestakuntza emateko;
- b) azterketak antolatzeko edota ikuskatzeko, beharrezkoa izanez gero;
- c) 11. artikuluan xedatutako tituluak emateko;
- d) 16. artikuluan adierazitako albuespenak emateko.

2. Estatu kide bakoitzak honako hauek bermatuko ditu:

a) itsasoko langileen prestakuntza eta ebaluazioa:

i) idatzita dauden programen arabera egituratuta daudela, eta barne hartzen direla ikastaroa emateko metodoak eta bitartekoak, prozedurak eta materiala, beharrezkoak direnak eskatutako gaitasun-mailak lortzeko, eta

ii) kualifikatuta dauden langileek eman, ikuskatu, ebaluatu eta babestuko dituztela, d), e) eta f) idatz-zatietan ezarritakoari jarraiki;

b) itsasontzian bertan prestakuntza emango duen edota enpleguaren ebaluazioa egingo duen pertsonak jardura horiek itsasontziaren ohiko funtzionamenduan kalterik eragiten ez denean soilik beteko dituela, eta prestakuntzarako eta ebaluaziorako nahikoa denbora eta adimena duenean;

c) irakasleak, ikuskatzaileak eta ebaluaziogileak behar bezala kualifikatuta daudela berariazko prestakuntza-mota eta -mailarako edota itsasoko langileen gaitasunari dagokion ebaluazioa egiteko, lehorrean zein itsasoan;

d) itsasoko langileek, zuzentarau honetan ezarritakoari jarraiki, titulua eskura dezaten enplegu-prestakuntza itsasoan zein lehorrean emango duten pertsona guztiek, nahitaez:

i) prestakuntza-programari buruzko balorazioa egin behar dute eta eman beharreko prestakuntza-mota bakoitzaren berariazko helburu didaktikoak ulertu behar dituzte,

ii) behar bezala kualifikatuta egon behar dute eman beharreko prestakuntzaren inguruan, eta

iii) prestakuntza-ikastaroa simulagailuak erabilita eman behar badute:

— simulagailuetan oinarritutako irakaskuntza-teknikei buruzko beharrezko jarraibideak izan behar dituzte, eta

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

— erabili beharreko simulagailu-mota erabiltzen esperientzia praktikoa izan behar dute;

e) itsasoko langileek titulazioa eskura dezaten enplegu-prestakuntza ikuskatzeaz arduratuko den pertsona orok eman beharreko prestakuntza-motarako egokitutako programa eta helburu didaktikoak erabat ulertu behar ditu;

f) itsasoko langileen enplegu-gaitasunari buruzko ebaluazioa egin behar duen pertsona orok, ebaluazioa itsasoan zein lehorrean egin, zuzentarau honetan ezarritako titulazioari jarraiki, nahitaez:

i) ebaluatu beharreko gaitasunari buruzko ezagueren eta ulermenen inguruan behar adinako maila lortu behar du,

ii) behar bezala kualifikatuta egon behar du ebaluatu beharreko eginkizunaren inguruan,

iii) ebaluazio-metodoei eta praktikei buruzko beharrezko jarraibideak eskuratuta izan behar ditu,

iv) ebaluazioak egiten esperientzia praktikoa izan behar du, eta

v) simulagailua erabilia egin behar badu ebaluazioa, erabili beharreko simulagailu-mota horri buruzko esperientzia praktikoa izan behar du, ebaluazioak egiten esperientzia handia duen pertsona baten ikuskaritzapean eta hark egokitzat hartu ondoren;

g) prestakuntza-ikastaro bat, irakaskuntza-erakunde bat edota irakaskuntza-erakunderen batek emandako kualifikazio bat onartzen badu estatu kideren batek, tituluak emateko ezarritako baldintza gisa, bermatu egin behar du 10. artikuluan ezarritako kalitate-neurriei buruzko xedapenen aplikazio-eremuak bere baitan hartzen dituela irakasleen eta ebaluatzaileen kualifikazioak eta haiek duten esperientzia. Kualifikazio, esperientzia eta gaitasun-arauen aplikazioak aintzak hartuko ditu irakasteko tekniken inguruko nahitaezko prestakuntza, prestakuntzari eta ebaluazioari buruzko metodoak eta jardunbideak eta, horrezaz gain, d), e) eta f) idatzatietan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

### *18. artikulua*

#### **Komunikazioa itsasontzian**

Estatu kide guztiek bermatuko dute:

a) estatu kideren baten bandera daramaten itsasontzi guztiek, b) eta d) idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, itsasontziko tripulazioko kide guztien artean hitzez eraginkortasunez komunikatu ahal izateko moduko bitartekoak izan behar dituzte beti, batez ere mezuak eta instrukzioak jasotzeko eta noizbehinkakoak behar bezala ulertzeko.

b) estatu kideren bateko banderapean nabigatzen duten bidaiari-itsasontzi guztietan, bai eta estatu kideren bateko portutik abiatzen den edo estatu kideren bateko portua jomuga duen bidaiari-itsasontzi guztietan ere, segurtasunarekin zerikusia duten gaitan tripulazioa eraginkortasunez arituko dela bermatzeko, lanerako hizkuntza bat ezartzen dela eta itsasontziko nabigazio-egunkarian adieraziko dela;

konpainiak edo, hala dagokionean, kapitainak erabakiko du zein den lanerako hizkuntza egokia. Marinel guztiek ulertu behar dute eta, hala dagokienean, aginduak eta instrukzioak emateko erabiliko dute, bai eta txostenak idazteko ere;

lanerako aukeratu den hizkuntza estatu kidean hizkuntza ofiziala ez bada, bete beharreko plan eta zerrenda guztiak lanerako hizkuntzara itzuliko dira;

c) bidaiari-itsasontzietan, larrialdiko egoeretan bidaiariei laguntzeko izendatuta dauden langileak erraz identifikatu behar dira; langile horiek, halaber, lagundu ahal izateko nahikoa komunikazio-ezaguerak izan behar dituzte, irizpide hauen nahasketa egoki guztiak kontuan hartzen direla:

i) ibilbide jakin batean garraiatzen diren bidaiarien nazionalitate nagusien hizkuntza egokia edo egokiak,

ii) ingelesez oinarrizko hitzak erabiltzeko aukera, oinarrizko instrukzioak emateko laguntza behar duten bidaiariei, bidaiariek eta tripulazioak hizkuntza komuna izan edo ez.

iii) larrialdiko egoeraren batean, hitzez komunikatu ezin denean, bestelako bitartekoren bat erabiltzeko beharra (esate baterako: probak; keinuak eskuekin; instrukzioak, biltzeko guneak, salbamendurako materialak eta irteteko ibilbideak dauden leku aldera erreparaztea).

iv) segurtasun-instrukzio guztiak zenbateraino eman diren ama-hizkuntzan edo beste hizkuntzaren batean, eta

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

v) larrialdi batean edo larrialdi-simulakro batean larrialdi deiak egiteko erabili ahal izango diren hizkuntzak, bidaiariei funtsezko jarraibideak emateko eta tripulazioko kideek bidaiariei laguntzeko;

d) estatu kideren bateko banderapean nabigatzen duten petrolio-ontzietan, produktu kimikoak garraiatzeko tanga-ontzietan eta gas likidotuak garraiatzeko tanga-ontzietan, kapitaina, ofizialak eta marinelak lanerako hizkuntza komun bat edo batzuk erabilita komunikatu behar izango dute;

e) itsasontziaren eta lehorreko agintarien artean komunikatu ahal izateko moduko bitarteko egokiak eduki behar dira; SOLAS 74 Hitzarmenaren V. kapituluko 14. arauko 4. paragrafoan ezarritakoari jarraiki egingo dira komunikazio horiek;

f) portuaren estatuko kontrola 95/21/EE Zuzentarauan ezarritakoari jarraiki egiterakoan, estatu kideek egiaztatu egin behar dute, halaber, estatu kidea ez den beste estaturen bateko banderapean nabigatzen duten itsasontziek artikuluko honetan ezarritakoa betetzen dutela.

### *19. artikulua*

#### **Tituluak onartzea**

1. 4. artikuluan ezarritako titulua ez duten marinelak onartu ahal izango dira, estatu kideren bateko bandera duten itsasontzietan zerbitzuak emateko, baldin eta titulu egokiak onartzeari buruzko erabakiak artikuluko honen 2. paragrafotik 6. paragrafora ezarritako prozedurari jarraiki hartu badira.

2. Hirugarren herrialde batek kapitain, ofizial edota irradi-komunikazioetako eragileren bati emandako titulu egokia, hura berretsita onatzen eman nahi badu estatu kideren batek, bere banderako itsasontzi batean zerbitzua eman ahal izan dezan, behar bezala arrazoitutako eskaera egingo dio Batzordeari, hirugarren herrialdearena onar dezan.

Batzordeak, Itsas Seguratasuneko Europako Agentziak lagunduta, eta interesa duen edozein estatu kideren behin-behineko parte-hartzearekin, II. eranskinean adierazitako informazioa bilduko du eta onartzeko eskaera aurkeztu duen herrialdeak dituen titulazio-eta prestakuntza-sistemak ebaluatuko ditu, STCW Hitzarmenaren baldintza guztiak betetzen dituen egiaztatzeko eta tituluen inguruan iruzurrak egin ez daitezten neurri egokiak hartu diren egiaztatzeko.

3. Batzordeak 8. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako arautze-prozedurari jarraiki hartuko du hirugarren herrialdearena onartzeari buruzko erabakia; hiru hileko epean eman behar du erabakia, onartzeko eskaera egin den egunetik kontatzen hasita.

Baiezkoa bada, onarpena baliozkoa izango da, 20. artikuluko xedapenei jarraiki betiere.

Lehen paragrafoan ezarritako epean ez bada hirugarren herrialdearena onartzeari buruzko erabakia hartzen, eskaera aurkeztu duen estatu kideak bere aldetik erabaki ahal izango du hirugarren herrialdearena onartu ala ez, 20. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako arautze-prozedurari jarraiki erabaki bitartean.

4. Estatu kideek, beren herrialdeko bandera daramaten itsasontziei dagokienez, hirugarren herrialdeek emandako tituluak eta Batzordeak onartutakoak berretsi ahal izango dituzte, II. eranskineko 4. eta 5. paragrafoetan xedatutakoa kontuan hartzen dutela.

5. Hirugarren herrialdeek emandako tituluak eta onartutakoak, eta 2005eko ekainaren 14a baino lehen *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* onartu eta argitaratutakoak baliozkoak izango dira, lehen bezala.

Estatu kide guztiak baliatu ahal izango dira onespenez horiez, baldin eta Batzordeak ez baditu gerora kentzen, 20. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

6. Onartu diren hirugarren herrialdeen zerrenda egingo du Batzordeak eta eguneratuta izango du. Zerrenda *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialeko* C atalean argitaratuko da.

7. 5. artikuluko 6. paragrafoan ezarritakoa gorabehera, estatu kideek baimena eman ahal izango dute, egoerak hala eskatzen badu, itsasoko langile batek irradi-telegrafista ofizial edota irradi-komunikazioetako eragile ez den posturen batean zerbitzua emateko — irradi-telekomunikazioei buruzko Erregelamenduak hitzartutakoa salbu— gehienez ere hiru hileko epean eta estatu kide horren bandera daraman itsasontzian; baimena eman ahal izango du, nahiz eta hirugarren herrialde batek emandako titulu egokia eta balioduna izan, hark emana eta berretsia herrialde horretan ezarritakoari jarraiki, eta nahiz eta une horretan berretsi gabe egon estatu kide horretan onartu ahal izateko eta, hartara, titulu egokia izan dadin estatu kide horren banderapeko itsasontzian zerbitzua emateko.

Oso erraz eskuratzeko moduko dokumentu-egiaztatzea edukitzea ezinbestekoa da, frogatzeko berrespen-eskaera bat aurkeztu zitzaizela agintari eskudunei.

*20. artikulua*

**STCW Hitzarmeneko baldintzak ez betetzea**

1. II. eranskinean zehaztutako irizpideak gorabehera, estatu kideren batek irizten badio onartutako hirugarren herrialde batek STCW Hitzarmenaren baldintzak ez dituela betetzen, lehenbailehen emango dio horren berri Batzordeari eta behar bezala arrazoitu behar du.

Batzordeak ahalik eta lasterren bidaliko dio jakinarazpena Komiteari, 28. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako Komiteari.

2. II. eranskinean zehaztutako irizpideak gorabehera, Batzordeak irizten badio onartutako hirugarren herrialde batek STCW Hitzarmenaren baldintzak ez dituela betetzen, lehenbailehen emango die horren berri estatu kideei eta behar bezala arrazoitu beharko du.

Batzordeak ahalik eta lasterren bidaliko dio jakinarazpena Komiteari, 28. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako Komiteari.

3. Estatu kideren batek asmoa baldin badu hirugarren herrialderen batek emandako titulu guztien berrespina bertan behera uzteko, lehenbailehen jakinaraziko die Batzordeari eta gainerako estatu kideei, behar bezala arrazoituta erabakia.

4. Batzordeak, Itsas Segurtasuneko Europako Agentziak lagunduta, hirugarren herrialdearen onarpena berriro ebaluatuko du, STCW Hitzarmenaren baldintzak betetzeari utzi dion egiaztatze aldera.

5. Itsas prestakuntzarako zentronen batek STCW Hitzarmenaren betebeharrak betetzeari utzi diolako zantzuak baldin badira, Batzordeak interesa duen herrialdeari jakinaraziko dio bi hileko epean balio gabetuko direla herrialde horretako titulu onartu guztiak; baldin eta ez badira neurriak hartzen bermatzeko STCW Hitzarmenaren baldintza guztiak beteko direla.

6. Onartutakoak bertan behera uzteari buruzko erabakia 28. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako arautze-prozedurari jarraiki hartuko da; erabakia, halaber, bi hileko epean hartu behar da, estatu kideak jakinarazpena aurkeztu zuen egunetik kontatzen hasita.

Estatu kideak neurri egokiak ezarriko ditu erabakia aplikatu dadin.

7. 5. artikuluko 6. paragrafoan ezarritakoari jarraiki emandako tituluak onartu direla ziurtatzeko berrespenak, hirugarren herrialde horretako titulu onartuak bertan behera uzteko erabakia hartu baino lehen, baliozkoak izaten jarraituko dute. Berrespen hori lortu duten itsasgizonek, dena dela, ezin izango dute goragoko maila baten onarpena berresteko eskaera egin, egoera honetan izan ezik: hobekuntza horren funtsa nabigatzen esperientzia handiagoa duela bada.

*21. artikulua*

**Berrebaluazioa**

1. 19. artikuluan, 3. paragrafoko lehen lerrokadan adierazitako prozeduraren arabera onartutako hirugarren herrialdeak, 19. artikuluan, 6. paragrafoan adierazitako herrialdeak barne, berriro ebaluatuko ditu Batzordeak, Itsas Segurtasuneko Europako Agentziak lagunduta; aldiari aldiari egingo ditu ebaluazio horiek eta, gutxienez, bost urtean behin, aplikatu beharreko irizpideak —II. eranskinean ezarritakoak— betetzen dituztela eta tituluen inguruan iruzurrak egin ez daitezkeen neurri egokiak hartu dituztela egiaztatze aldera.

2. Batzordeak lehentasun-irizpideak ezarriko ditu hirugarren herrialde horiek ebaluatzeko, eta araudia zenbateraino bete duten adierazten duen informazioa hartuko du oinarri; 23. artikuluan ezarritakoari jarraiki portuaren estatuak egindako kontrolatik ateratako informazioa da hori, bai eta STCW Kodearen A-I/7 atalari jarraiki hirugarren herrialdeek ebaluazio independenteei buruzko jakinarazpenetako emaitzen txostenetakoak ere.

3. Batzordeak estatu kideei bidaliko die ebaluazio horien emaitzak biltzen dituen txostena.

22. artikulua

**Portuko Estatuak egindako kontrola**

1. 2. artikuluan ezarritakoari jarraiki salbuetsitako itsasontzi-motak izan ezik, itsasontziak estatu kideren bateko portuan dauden bitartean, edozein dela daramaten bandera, portuko estatuaren kontrolpean egongo dira; estatu kide horrek behar bezala baimendutako funtzionarioek egingo dituzte kontrolak, egiaztatzeko itsasontzian zerbitzuak ematen dituzten itsasoko langile guztiek eta STCW Hitzarmenak ezarritako tituluren bat izan behar dutenek benetan dituztela titulu horiek edota tituluei dagozkien salbuespenak.

2. Portuaren estatuko kontrola zuzentarau honetan ezarritakoari jarraiki egiterakoan, estatu kideek bermatu egin behar dute 95/21/EE Zuzentzarauan ezarritako xedapen eta prozedura guztiak betetzen direla.

23. artikulua

**Portuko Estatuaren kontrol-prozedurak**

1. 95/21/EE Zuzentzarauan ezarritakoa gorabehera, portuaren estatuak 22. artikuluan ezarritakoari jarraiki egin beharreko kontrol-ikuskapenetan honako hauek soilik egin behar ditu:

a) egiaztatu itsasontzian zerbitzuak ematen dituzten itsasoko langileek eta STCW Hitzarmenean ezarritakoari jarraiki zeregin horretarako titulazioa behar dutenek badutela titulu egokia edo baliozko salbuespena edota dokumentu-egiaztatzea, frogatzen duena berrespena lortzeko eskaera egin dietela itsasontziak daraman banderako herrialdeko agintariei.

b) egiaztatu itsasontzian zerbitzuak ematen dituzten itsasoko langileen giza baliabideak eta titulazioa bat datozela itsasontziak daraman banderako herrialdeko agintariek segurtasun-hornikuntzari buruz erabakitako xedapenekin.

2. STCW Kodearen A zatian ezarritakoari jarraiki egin beharreko ebaluazioa, jakiteko itsasontziko langileek baduten nahikoa gaitasun STCW Hitzarmenean guardiari buruz ezarritako arauak aintzat hartzeko, soilik egingo da arau horiek aintzat hartzen ez direla susmoa izateko justifikatutako arrazoiak badaude, besteak beste:

a) itsasontziak abordaje-arazoren bat izan badu edota hondoa jo badu, edo

b) itsasontzia nabigatzen, aingura botata edo porturatuta dagoela, nazioarteko hitzarmenen batean legearen aurkako substantziazat hartutakoren bat deskargatzen badu, edo

c) itsasontziak modu irregularrean edo arriskutsuan egin badu maniobra, NIEk trafikoa antolatze aldera ezarritako neurriak ez betetzeagatik, edo nabigazioa segurua izan dadin jardunbideak eta prozedurak ez betetzeagatik, edo

d) itsasontziaren funtzionamenduak arriskuan jarri baditu pertsonak, ingurumen-ondasunak edota -baliabideak, edo

e) titulua iruzur eginda lortu bada edo titulua aldean duen pertsona ez bada titulu hori eman zaion pertsona bera, edo

f) itsasontziak duen bandera STCW Hitzarmena berretsi ez duen herrialde batekoa bada, edo kapitainak, ofizialek edota marinelek dituzten tituluak STCW Hitzarmena berretsi ez duen hirugarren herrialderen batek emanak badira.

3. Titulua egiaztatzeaz gain, 2. paragrafoan adierazitako ebaluazioak berekin ekar dezake marinela egiaztatu behar izatea lanpostuan antzeko gaitasuna duela. Egiaztatze horrek bere baitan har dezake egiaztatu behar izatea guardiei buruzko preskripzio operatiboak betetzen direla eta itsasontziko langileek behar bezala erantzuten dietela larrialdiko egoerei, haien gaitasun-mailari dagokien moduan.

24. artikulua

**Geldiaraztea**

95/21/EE Zuzentzarauan ezarritakoa gorabehera, jarraian aipatuko ditugun arrazoiak soilik izango dira zuzentzarau honi jarraiki estatu kideren batek erabili ahal izango dituenak itsasontzi bat geldiarazteko; betiere portuko estatuaren kontrola egin duen ofizialak irizten badio arriskuan jar daitezkeela pertsonak, ingurumen-ondasunak edota -baliabideak; hona hemen arrazoiak:



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- a) itsasontziko langileek ez izatea titulu egokia edo baliozko salbuespena edota dokumentu-egiaztagiria, frogatzen duena berrespena lortzeko eskaera egin dietela itsasontziak daraman banderako herrialdeko agintariei;
- b) ez betetzea segurtasun-hornikuntzari buruz banderaren estatuan aplikatzen diren arauak;
- c) nabigazioaren edo makinaren guardia antolatzeko modua bat ez etortzea banderaren estatuan ezarritako baldintzekin;
- d) guardian ez egotea gaitasuna duen pertsona bat, segurtasunez nabigatzeko funtsezko ekipoari eragingo diona, irratikomunikazioak ziurtatuko dituen edota itsasoaren kutsadura prebenituko duena;
- e) ezin aurkeztu ahal izatea lanbide-gaitasuneko egiaztagiriak, itsasontziaren segurtasunaren eta kutsaduraren prebentzioaren alorrean itsasoko langileei dagozkien eginkizunetarako;
- f) ez edukitzea nahikoa atseden hartu duten eta zerbitzua betetzeko gai diren langileak, bidaiari ekitean lehendabiziko guardiarako eta segidako guardietarako.

### *25. artikulua*

#### **Betetze-mailaren aldiaren kontrola**

Tratatua 226. artikulua ematen dizkion ahalmenak gorabehera, Batzordeak, Itsas Segurtasuneko Europako Agentziak lagunduta, egiaztatuko du, aldi-aldi eta bost urtean behin, gutxienez, estatu kideek betetzen dituztela zuzentarau honetan ezarritako gutxienezko baldintzak.

### *26. artikulua*

#### **Txostenak**

1. 2008ko abenduaren 14a baino lehen, Batzordeak ebaluazio-txostena aurkeztuko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, honako hauek oinarri hartuta: STCW Hitzarmenaren xedapenei buruzko azterketa eta ebaluazio xeheak, horien aplikazioa, eta segurtasunaren eta tripulazioen prestakuntza-mailaren arteko loturari buruz barneratutako ezaguera berriak.
2. 2010eko urriaren 20a baino lehen, 25. artikuluan ezarritakoari jarraiki bildutako informazioa oinarri hartuta egindako ebaluazio-txostena aurkeztuko die Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari.

Txosten horretan, zuzentarau honetan ezarritakoa estatu kideek zenbateraino betetzen duten aztertuko du Batzordeak eta, beharrezkoa denean, neurri osagarriei buruzko proposamenak aurkeztuko ditu.

### *27. artikulua*

#### **Aldaketa**

1. Batzordeak zuzentarau hau aldatu ahal izango du, 1. artikuluan, 16., 17., 18., 23. eta 24. puntuetan adierazitako nazioarteko kodeetan gerora egiten diren eta indarrean jarri diren aldaketak aplikatzeko eta betearazteko.

Batzordeak zuzentarau hau aldatu ahal izango du, halaber, Erkidegoko araudian egindako aldaketa oro bertan aplikatzeko eta betearazteko.

Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek 28. artikulua 3. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

2. STCW Hitzarmenaren beste neurri edo protokolo batzuk ezarri ondoren, Kontseiluak erabakiko ditu, Batzordeak hala eskatuta, neurri edo protokolo horiek berresteko modalitateak eta bermatu egingo du horiek modu uniformearen eta batera aplikatuko direla estatu kideetan. Erabaki hori hartzeko, estatu kideetako parlamentu-prozedurak eta NIEk ezarritakoaren arabera prozedurak hartuko ditu kontuan.

3. 1. artikuluan, 16., 17., 18., 21., 22. eta 24. puntuetan adierazitako nazioarteko neurrien aldaketak zuzentarau honen aplikazio-eremutik salbuetsi ahal izango dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2099/2002/EE Erregelamenduaren —2002ko urriaren 5koa, itsas segurtasuneko eta ontziek eragindako kutsaduraren prebentzioko Lantaldea (COSS) sortzen duena <sup>(1)</sup>— 5. artikulua arabera.

---

(1) L 324 EO, 2002.11.29koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

### 28. artikulua

#### **Komitearen prozedura**

1. Itsas segurtasuneko eta ontziek eragindako kutsaduraren prebentzioko Lantaldearen (COSS) laguntza izango du Batzordeak; 2099/2002/EE Erregelamenduaren arabera sortutako Lantaldea da hori.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta haren 8. artikuluan xedatutakoa bete egingo da.

1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluko 6. paragrafoan adierazitako epea zortzi astekoa da.

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5 *bis* artikuluko 1.etik 4.era bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta haren 8. artikuluan xedatutakoa bete egingo da.

### 29. artikulua

#### **Xedapen iragankorrak**

Estatu kideren batek, 12. artikuluan ezarritakoari jarraiki, 1997ko otsailaren 1a baino lehen aplikatzekoak ziren xedapenei jarraiki berriro ere ematen badu tituluren bat edo lehendabizikoz emandako tituluen baliozkotasuna luzatu nahi badu, aldatu ahal izango ditu, egokitzat hartuz gero, hasierako tituluetan adierazten diren tonaje-mugak, eta horiek honako hauekin ordeztu:

a) «200 tonako erregistroko tonaje gordin» ordez «500 tonako erregistroko tonaje gordin», eta

a) «1.600 tonako erregistroko tonaje gordin» ordez «3.000 tonako erregistroko tonaje gordin».

### 30. artikulua

#### **Zehapenak**

Estatu kideek zehaztuko dute 1., 3., 5., 7., 9-15., 17., 18., 19., 22., 23., 24. eta 29. artikuluei eta I. eta II. eranskinei jarraiki nork bere estatuan ezarritako xedapenak betetzen ez diren kasuetarako aplikagarriak diren zehapenen araubidea; horrezaz gain, beharrezko neurriak hartuko dituzte zehapen horiek aplikatzen direla bermatzeko. Zehapen horiek eraginkorrak, proportziozkoak eta disuasiozkoak izango dira.

### 31. artikulua

#### **Komunikazioa**

Zuzentarau honen bidez araututakoaren eremuan, estatu kideek ezarri dituzten xedapenen testuak helaraziko dizkiote ahalik eta lasterren Batzordeari. Batzordeak horien berri emango die gainerako estatu kideei.

### 32. artikulua

#### **Indargabetzea**

2001/25/EE Zuzentaraua indargabetu da —III. eranskinaren A zatian adierazitako Zuzentaruaren bidez aldatua—; nolana ere, III. eranskineko B zatian adierazitako zuzentaruak barne-zuzenbidean eransteke epeei dagozkien betebeharrak beteko dituzte estatu kideek.

Indargabetutako Zuzentaruari egindako erreferentziei dagokienez, zuzentarau honen erreferentziatzat hartuko dira, eta IV. eranskinean adierazten den elkarrekikotasun-taularekin bat etorriko dira.

### 33. artikulua

#### **Indarrean sartzea**

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeitau eguneko epean jarriko da indarrean.

2008/106/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 323/33, 2008/12/03koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

*34. artikulua*

**Hartzaileak**

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko azaroaren 19an.

*Europako Parlamentuaren izenean, Presidentea H.-G. PÖTTERING*

*Kontseiluaren izenean, Presidentea J.-P. JOUYET*

## ANEXO I

**REQUISITOS DE FORMACIÓN DEL CONVENIO STCW CONTEMPLADAS EN EL ARTÍCULO 3**

## CAPÍTULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

1. Las reglas que figuran en el presente anexo complementan las disposiciones obligatorias contenidas en la parte A del Código STCW con excepción de la regla VIII/2 del capítulo VIII.

Cualquier referencia a un requisito prescrito en una regla constituye igualmente una referencia a la sección correspondiente de la parte A del Código STCW.

2. Los Estados miembros se asegurarán de que la gente de mar posee una competencia lingüística acorde con lo especificado en las secciones A-II/1, A-III/1, A-IV/2 y A-II/4 del Código STCW, que le permita desempeñar sus cometidos específicos en un buque con pabellón de un Estado miembro de acogida.
3. En la parte A del Código STCW figuran las normas de competencia que los aspirantes han de demostrar para que les sean expedidos y revalidados los títulos o certificados de competencia en virtud de las disposiciones del Convenio STCW. Para dejar en claro la vinculación que existe entre las disposiciones sobre titulación alternativa del capítulo VII y las disposiciones sobre titulación de los capítulos II, III y IV, las aptitudes específicas en las diversas normas de competencia se agrupan con arreglo a siete funciones, a saber:

- 1) navegación;
- 2) manipulación y estiba de la carga;
- 3) control del funcionamiento del buque y cuidado de las personas a bordo;
- 4) maquinaria naval;
- 5) instalaciones eléctricas, electrónicas y de control;
- 6) mantenimiento y reparaciones;
- 7) radiocomunicaciones,

a los siguientes niveles de responsabilidad:

- 1) nivel de gestión;
- 2) nivel operativo;
- 3) nivel de apoyo.

Las funciones y los niveles de responsabilidad se identifican mediante el oportuno epígrafe en los cuadros de normas de competencia que figuran en los capítulos II, III y IV de la parte A del Código STCW.

## CAPÍTULO II

## CAPITÁN Y SECCIÓN DE CUBIERTA

## Regla II/1

**Requisitos mínimos aplicables a la titulación de los oficiales que hayan de encargarse de la guardia de navegación en buques de arqueo bruto igual o superior a 500 toneladas**

1. Todo oficial que haya de encargarse de la guardia de navegación en un buque de navegación marítima de arqueo bruto igual o superior a 500 toneladas tendrá un título idóneo.
2. Todo aspirante al título deberá:
  - 2.1. haber cumplido 18 años de edad;

- 2.2. haber cumplido un período de embarco no inferior a un año, como parte de un programa de formación aprobado que incluya formación a bordo conforme a los requisitos de la sección A-II/1 del Código STCW, hecho que habrá de constar en el oportuno registro de formación, o bien acreditar un período de embarco aprobado de, como mínimo, tres años;
- 2.3. haber desempeñado, durante el período de embarco requerido, tareas de guardia de puente a lo largo de, como mínimo, seis meses, bajo la supervisión del capitán o de un oficial competente;
- 2.4. reunir los requisitos pertinentes de las reglas del capítulo IV para desempeñar, en cada caso, funciones específicas de radiocomunicaciones, de conformidad con lo dispuesto en el Reglamento de radiocomunicaciones, y
- 2.5. haber completado una educación y formación reconocidas y satisfacer las normas de competencia que se establecen en la sección A-II/1 del Código STCW.

*Regla II/2*

**Requisitos mínimos aplicables a la titulación de capitanes y primeros oficiales de puente de buques de arqueo bruto igual o superior a 500 toneladas**

Capitán y primer oficial de puente de buque de arqueo bruto igual o superior a 3 000 toneladas

1. Todo capitán y todo primer oficial de puente de buques de navegación marítima de arqueo bruto igual o superior a 3 000 toneladas tendrán un título idóneo.
2. Todo aspirante al título deberá:
  - 2.1. satisfacer los requisitos aplicables a la titulación de los oficiales que hayan de encargarse de la guardia de navegación en buques de arqueo bruto igual o superior a 500 toneladas y haber desempeñado ese cargo durante un período de embarco aprobado, a saber:
    - 2.1.1. no inferior a 12 meses, para el título de primer oficial de puente,
    - 2.1.2. no inferior a 36 meses, para el título de capitán; este período podrá ser reducido a un mínimo de 24 meses si se ha prestado servicio como primer oficial de puente durante un período de embarco no inferior a 12 meses, y
  - 2.2. haber completado una educación y formación reconocidas y satisfacer las normas de competencia que se establecen en la sección A-II/2 del Código STCW, por lo que respecta a los capitanes y primeros oficiales de puente de buques de arqueo bruto igual o superior a 3 000 toneladas.

Capitán y primer oficial de puente de buque de arqueo bruto comprendido entre 500 y 3 000 toneladas

3. Todo capitán y todo primer oficial de puente de buques de navegación marítima de arqueo bruto comprendido entre 500 y 3 000 toneladas tendrán un título idóneo.
4. Todo aspirante al título deberá:
  - 4.1. satisfacer los requisitos aplicables a la titulación de los oficiales que hayan de encargarse de la guardia de navegación en buques de arqueo bruto igual o superior a 500 toneladas, por lo que hace al título de primera;
  - 4.2. satisfacer los requisitos aplicables a la titulación de los oficiales que hayan de encargarse de la guardia de navegación en buques de arqueo bruto igual o superior a 500 toneladas y haber desempeñado ese cargo durante un período de embarco aprobado no inferior a 36 meses, por lo que hace al título de capitán; este período podrá ser reducido a un mínimo de 24 meses si se ha prestado servicio como primer oficial de puente durante un período de embarco no inferior a 12 meses, y
  - 4.3. haber completado una educación y formación reconocidas y satisfacer las normas de competencia que se establecen en la sección A-II/2 del Código STCW, por lo que respecta a los capitanes y primeros oficiales de puente de buques de arqueo bruto comprendido entre 500 y 3 000 toneladas.

*Regla II/3***Requisitos mínimos aplicables a la titulación de los oficiales que hayan de encargarse de la guardia de navegación y los capitanes de buques de arqueo bruto inferior a 500 toneladas***Buques no dedicados a viajes próximos a la costa*

1. Todo oficial que haya de encargarse de la guardia de navegación y preste servicio en un buque de navegación marítima de arqueo bruto inferior a 500 toneladas no dedicado a viajes próximos a la costa tendrá un título idóneo que le habilite para el cargo en buques de arqueo bruto igual o superior a 500 toneladas.
2. Todo capitán que preste servicio en un buque de navegación marítima de arqueo bruto inferior a 500 toneladas no dedicado a viajes próximos a la costa tendrá un título idóneo que le habilite para el mando como capitán de buques de arqueo bruto comprendido entre 500 y 3 000 toneladas.

*Buques dedicados a viajes próximos a la costa**Oficial que haya de encargarse de la guardia de navegación*

3. Todo oficial que haya de encargarse de la guardia de navegación en un buque de navegación marítima de arqueo bruto inferior a 500 toneladas dedicado a viajes próximos a la costa tendrá un título idóneo.
4. Todo aspirante al título de oficial encargado de la guardia de navegación en buques de arqueo bruto inferior a 500 toneladas dedicados a viajes próximos a la costa deberá:
  - 4.1. haber cumplido 18 años de edad;
  - 4.2. demostrar que:
    - 4.2.1. ha completado con éxito una formación especial que incluya la realización del adecuado período de embarco, conforme a lo prescrito por la administración;
    - 4.2.2. ha prestado servicio durante un mínimo de tres años en la sección de puente, y
  - 4.3. reúne los requisitos pertinentes de las reglas del capítulo IV para desempeñar, en cada caso, funciones específicas de radiocomunicaciones, y
  - 4.4. haber completado una educación y formación reconocidas y satisfacer las normas de competencia que se establecen en la sección A-II/3 del Código STCW, por lo que respecta a los oficiales encargados de la guardia de navegación en buques de arqueo bruto igual o inferior a 500 toneladas dedicados a viajes próximos a la costa.

*Capitán*

5. Todo capitán que preste servicio en un buque de navegación marítima de arqueo bruto inferior a 500 toneladas dedicado a viajes próximos a la costa tendrá un título idóneo.
6. Todo aspirante al título de capitán de un buque de navegación marítima de arqueo bruto inferior a 500 toneladas dedicado a viajes próximos a la costa deberá:
  - 6.1. haber cumplido 20 años de edad;
  - 6.2. haber cumplido un período de embarco no inferior a 12 meses como oficial encargado de la guardia de navegación, y
